

2013: Estatistikaren Nazioarteko Urtea

Nola ulertu behar da langabezia-tasa?


Langabezia-tasak adin talde bereko biztanle aktiboaren artean langabezian daudenen ehunekoa adierazten du. Biztanle aktiboak aipatzerakoan, lan egiteko prest daudenak hartzen dira kontuan, hau da, ez dira aintzat hartzen 16 urtetik beherakoak, jubilatutakoak, lanik bilatzen ez duten ikasleak, ezta lan egin ezin duten ezgaituak ere. Eta langabezian daudela azaltzerakoan, hauexek hartzen dira kontuan: lanik ez dutenak nahiz eta aktiboki bilatu, hau da, azken lau asteetan lana aurkitzeko gestioaren bat egin dutenak.

Eustatek [Gazteen Euskal Behatokiari](#) emandako datuen arabera, EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa 2012an (urteko batez bestekoa) % 23,8koa izan da (datu horiek Eustatek kalkulatu ditu Gazteen Euskal Behatokiaren eskaera zehatz bati erantzuna emateko, eta Behatokiaren [estatistiketan](#) bakarrik daude eskuragarri).

Gazteen langabezia-tasa % 23,8koa dela esateak ez du esan nahi gazte guztien % 23,8 langabezian daudunik, talde horretako jarduera tasa % 49,4koa baita. % 23,8 horrek adierazten du lan egin ahal eta nahi duten gazteen artean, lanik aurkitzen ez dutenen portzentajea.

16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien artean zenbat dauden langabezian kalkulatu badugu, 2012an % 11,8 direla esan dezakegu.

[Biztanleria gazte aktiboaren gainean kalkulaturako langabezia-tasari](#) gertatzen zaion bezala, gazte guztiei egokitutako langabeziak aldaketa handiak jasan ditu azken hamabi urteotan. 2000 urtean ia gazte guztien % 15 langabezian zeuden, 2007an, aldiz, % 3,3, eta oraingo zifrak duela hamar urte izandakoen antzekoak dira.



Eta zer egiten dute gainontzeko gazteek? Gazteen Euskal Behatokiak 2012ko azaro eta abenduaren artean egindako azken inkestaren arabera, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 47,5 ikasten dabilta soilik, % 9,4k nagusiki ikasten dute baina lantxoren bat ere egiten dute, beste % 30,6k lan egiten dute batez ere, eta ez dira % 1era iristen beste egoeratan daudenak (etxeko lanetan edo abarretan).

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

